

Segi dezagun dantzan, segi dezagun ametsetan

Miren AZKARATE
BADIOLA

Bi hilabete eskas igaro dira gaur bezala hauteskunde aurreko eguneko testu hau idaztea tokatu zitzaidanetik. Aurrekoan abesteko eskatu nizuen eta aizue, emaitzak ez ziren txarrak izan, kar, kar... Beraz, nahi baduzue, honetan ere abestu dezakegu, hamaika abesti datozkit burura, baina zer iruditzen zaizue hau? «Segi dezagun dantzan, segi dezagun ametsetan, zu eta ni batera geldiezinak gara».

Ez da emaitzak ez zirela txarrak izan, onak izan ziren, oso onak. Eta oraindik

hobetu daitezke bihar eta datozen hauteskundeetan.

Onena niretzat orain arte garaiezin sentitzen ziren jeltzaleen noraeza ikustea izan da. Hegemonia amaitu ote zaie? Gehien maite dutena, boterea, esku artetik nola doakien ihesi bizitzen ari dira eta urduri daude, oso urduri. Hainbeste, non boterean jarraitzeagatik edozer (eta edozer diodanean, edozer da) egiteko prest daudela erakutsi duten inoiz baino argiago. Ez naiz hasiko adibide guztiak zerrendatzen, baina deigarrienak Durangon eta Gipuzkoako Batzar

Nagusietan gertatutakoak izan dira. Ba horixe: haien amak ere saltzeko gai dira ezker independentisten gainetik gertatzeko eta boterean jarraitzeko. Eta behin lortuta, zer da egin duten lehen gauza? Haiek alkatetza lortu duten herrietan alkateen soldatak igo!!

Guk herria eta herritarrak maite ditugu gehien, ez boterekeria. Eta herriak ikusi du hau horrela dela, emaitzak ikusi besterik ez daude. Oinarri guztiaren indarra, guzti-guztiona, beharko dugu Madrildik datozen eskuin zaunkak jasan eta haiei aurre egiteko. •

Bazkalosteak

Amagoia
MUJIKATELLERIA

Bazkalosteko solasaldien herria da gurea. Zenbat mundu ez ote diren konpondu euskal mahaian bueltan, ardo kopak eta kafe kikarak elkarrekin dantzan hasten diren une horretatik aurrera. Eztabaidak, errietak eta borrokak ere gertatu izan dira. Betiko laguntasunak piztu dira bazkaloste batean eta betiko hase-rreak lehertu.

Ez dakit heldutasuna edo bake-giroarekiko maitasuna izango ote den (bake faltsua, noski), baina urteekin ikasi dut mahai-kideen arabera eztabaida batzuk

pizten eta beste batzuk saihesten. Ez da arte makala hori, hizketarako bide ego-kiak sumatzearena, alegia.

Batzuetan mahai politiko eta soziala tokatzen da, herria eraitsi eta berriz josteko nahikoa indar eta pasio daukana. Tragoek ere ematen dute indarra, noski. Beste batzuetan hobe da gai sozialak eta politikoak saihestea eta bestelako pasadizoetan galtzea. Desadostasunak forma oso itsusiak har ditzake bazkaloste batean. Badira urte batzuk osaba batekin seko haserretu nintzela atez atekoa zela eta ez zela. Garai gogorrek ziren

haiek eta berak “El Diario Vasco” irakurtzen zuen. Egun batzuetara adiskidetu ginen, baina ez ginen ados jarri.

Kontua da duela gutxi horrelako bazkaloste batean nengoela, gai politikoak eta sozialak kontrako eztarritik joan daitezkeen horrelako batean, eta hara non espero ez nuenak honako hau bota zuen: «Oraingoan botoa ematera joan beharko da. Fatxa horiek irabazten baidute, ederra daukagu». Harrituta geratu nintzen, gutxien espero nuenak bota zuen gogoeta. Esperantza-koxkor bat kafe kikan. •